



Usurbilgo Udala



2015EKO OTSAILAREN 24AN EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Mertxe Aizpurua Arzallus A.

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaca A.
Josu Portu Alzaga J.
Jone Urdampilleta Urdampilleta A.
Jose María Rivadeneyra Sicilia J.
Enara Arbizu Irurtia A.
Iñaki Ugarte Aguirre J.
Eustakio Arrojeria Eguzkiza J.
Jose Ramon Furundarena Salsamendi J.
Luismari Ormaetxea Santsiñena J.
Miren Josune Urquia Carrera A.
Josune Urkola Larrarte A.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin A.

Ez da bertaratu: Ricardo Crespo Rubio J.

Arratsaldeko 18:05ean batzarrari hasiera ematen zaio.

Usurbilen, 2015eko otsailaren 24an, arratsaldeko 18:05ean, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Mertxe Aizpurua Arzallus izan da Batzarburua.

1.- AKTEN ONESPENA:

- 2014/10/28KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2014ko urriaren 28ko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.

- 2014/11/25EKO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek, 2014ko azaroaren 25eko ohiko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala



2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015EKO URTARRILAREN 19TIK OTSAILAREN 13RA (2015/0029 – 2015/0130)

Alkatetzak 2015eko urtarrilaren 19tik otsailaren 13ra bitartean (2015/0029–2015/0130) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- SAN MARKO MANKOMUNITATEKO 2015EKO AURREKONTUAREN BEHIN BETIKO ONARPENAREN AURKAKO AUZI-ERREKURTSOA AURKEZTEA.

Alkateak adierazi du gai hau plenoak erabaki beharrekoa dela, baina ezin zela hurrengo plenora arte utzi, zeren auzi-errekurtsoa aurkezteko epea gainditu egingo zen. Hori horrela, diktaminatu gabe datorrenez, hasteko gai-zerrendan sartzea proposatzen da.

Beraz, gaia diktaminatu gabe datorrenez, batzarkideek puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute gehiengoz. Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Jarraian, Jose M^a Rivadeneyrak gaiari buruzko azalpenak eman ditu. Gai hau ez dela berria, iaz egoera berdinean zirela esan du. Hau da, aurten ere San Marko Mankomunitateak onartu dituen aurrekontuak ez ditu errespetatzen ez estatutuak ezta udalerrri honekin sinatutako akordioak ere. Kuotak kalkulatzeko egiten dena da batzuen bilketa denen artean ordaindu, zehazki, Donostiako, Lasarteko, Errenteriako eta Urnietako kaleetan dauden kontenedoreen bilketa herri guztien artean ordaintzera behartzen dituzte. Hori ez dela bidezkoa azpimarratu du.

Iaz ere egoera berdinean egonik negoziatzeko saiakerak egin zituztela adierazi du, baina aurrean lehendakariaren jarrera itxia topatu zutela azpimarratu du, eta jarrera horrek PNV, PSOE eta PPren babesa izan zuela gaineratu du.

Aurten egoera errepikatu egin dela eta pasa den abenduan 2015eko aurrekontuak onartu zirela esan du. Batzar horretan bertan bozka eman behar zuten batzarkide guztiei garbi adierazi zitzaizela esan du nola ari ziren urratzen akordioak, eta hala eta



Usurbilgo Udala



guztiz ere urraketa hori egin zuten. Jarrera itxi baten aurrean, bide politiko guztiak eta elkarrizketa eta negoziaketa bide guztiak itxiak geratu direla esan du, horrela, soilik bide judiziala geratzen zaiela herritarren eskubideak defendatzeko. Kalte ekonomiko bat eragiten zaiola gure herriari adierazi du.

Luisuari Ormaetxeak adierazi du iaz ere gai hau landu zela apirilaren 29ko plenoan eta orduan emandako argudio berdinegatik gaur ere aurka bozkatuko dutela.

Batzarkideek, alkatearen proposamena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honako testuaren arabera:

“Esp.zk.: ID.08/2015-0068

Ikusirik

2015eko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean San Marko Mankomunitateko 2015eko Aurrekontuaren behin betiko onarpena argitaratu dela.

Legeak aurreikusitako epearen barruan administrazioarekiko auzi-errekurtsoa tartekatzea beharrezkoa jotzen dela.

Kontutan harturik

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 legearen 22.2.j) artikuluan, eta Administrazioarekiko Auzialdiak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/98 Legeak xedatutakoa.

Hau horrela, alkatearen proposamena kontutan hartuta, Udalbatza Osoak honako erabakia hartu du gehiengoz:

E R A B A K I A

LEHENA: 2015eko urtarrilaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako San Marko Mankomunitateko 2015eko Aurrekontuen behin betiko onarpena Administrazioarekiko Auzialdiko auzibidean errekurritzea, Udal honen interesak defendatuz.

BIGARRENA: Jarraian aipatzen diren abokatu eta prokuradoreak izendatzea Usurbilgo Udalaren ordezkartzan aritzeko dagokien auzi-organoetan

- Abokatua: Iñigo Lizari Illaramendi jauna
- Bilboko prokuradorea: German Ors Simon jauna

Udalak prokuradoreen alde emanak dituen ahalmen oro erabili ditzakete.



Usurbilgo Udala



HIRUGARRENA: Kontratu txiki honek eragindako gastua aurrekontuko 1.1000.226.920.00.01 partidaren kontura joango da.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri izendaturiko abokatuei eta kontu-hartzailetzari ematea.”

Bozketan honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza eta Jose Ramon Furundarena Salsamendi.

Aurkako botoak: Luismari Ormaetxea Santsiñena eta Miren Josune Urquia Carrera.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

4.- GALDERAK, ESKAERAK ETA MOZIOAK.

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

4.1.- USURBILGO EH BILDUKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: 2015EKO MARTXOAREN 8KO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.

Enara Arbizuk adierazpena irakurri du.

Batzarkideek adierazpen instituzionala aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Emakumeen Nazioarteko Egunean badaukagu zer ospatu eta zer aldarrikatu. Baina, batez ere, nabarmendu nahi ditugu, krisialdiaren aitzakian, botere ekonomiko eta politikoak hartzen ari diren erabakiek pertsonen bizitzetan eta bereziki emakumeengan dauzkaten ondorio lazgarriak.

Diskurtso ofizialen arabera, krisia sortu da merkatuak errentagarritasuna galdu duelako. Guretzat, ordea, krisian gaude kapitala ezinezko bihurtzen ari delako bizitza duina izateko. Krisi-egoera honetan, merkatuen errentagarritasuna handitu nahian,



Usurbilgo Udala



austeritate neurriak jarri dituzte martxan, urteetako borrokaren bitartez irabazitako eskubideak galtzeko arriskuan jarriz..

Ekonomiaren oinarrian etxeko lanak eta zaintza-lanak dauden arren, sistema kapitalistak lan hauek gutxietsi egiten ditu. Ezkutuan geratzen dira, sozialki ez dira errekonozitzen eta ordaindu ere ez. Lan-estatusa bera ukatu egiten die, nahiz eta jakin bizitzaren oinarria direla, lan-indarra sortu eta mantentzen duten lanak direlako. Eta ekonomiaren, aberastasunaren eta lanaren kontzeptuak finantzen munduarekin, lan ordainduarekin, lan-“produktiboa”rekin lotzen dira, guztiaren erdigunean jarriz. Merkatu kapitalista jartzen da ekonomiaren erdigunean eta bizitza honen zerbitzura, alderantziz egin ordez.

Etxeko lanen eta zaintza-lanen ardura nagusiki emakumeei ezartzen zaiela kontuan izanda bakarrik uler daiteke emakumeek lan-merkatuan duten leku marjinala eta esplotazio bikoitza. Lan-merkatuan emakumeek gizonezkoek baino %36,2 gutxiago kobratzen dute. Lanaldi partzialetan dauden %80,9 emakumeak dira. Lan-merkatuak emakumeak bigarren mailako langile gisa erabiltzen ditu, haien lekua, nagusiki, etxean dagoela defendatzen duelako. Sistema kapitalista eta patriarkatua gainditzeko beharra inoiz baino ageriago agertzen zaigu, bizitza ekonomiaren erdigunean jarri ahal izateko, zaintza-lanak errekonozitzeko, sexuaren araberako lan-banaketarekin bukatzeko, bizitza duinak bizi ahal izateko.

Martxoaren 8 honetan badugu zer ospaturik, bestalde. Aurreko urteko adierazpenean abortuaren kontrarreformaren mehatxua aipatzen genuen. Mugimendu feministarekin batera euskal jendartearen gehiengo batek egindako borrokari esker erreforma gelditzea lortu dugula ospatuko dugu. Dena den, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago helduko dira, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala, heteropatriarkala, indartzeko neurriak dira.

Emakumeen bizi-baldintzez ari garelarik, ezin ahaztu indarkeria matxista. Indarkeria matxista sistema patriarkalaren adierazpide bat da, adierazpiderik edo ondoriorik larriena. 2014an 5 emakume hil ditu indarkeria matxistak. Indarkeria matxista salbuespeneko gertakizun bat ez den neurrian eta gure egunerokotasunean bizi dugun neurrian, lehen mailako arazoa da guretzat.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, agintaldi honetan udalean parekidetasuna lantzeko egindako lanean sakontzeko konpromiso irmoa adierazi nahi dugu.

Usurbilgo udaleko hautetsiok, emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu nahi dugu:

1. Gure herrian biolentziarik gabeko bizitza bizitzeko eremua izateko bitartekoak jarriz.
2. Emakume elkarte eta mugimendu feministarekin elkarlana bultzatuz.
3. Gure herriko emakumeak bizitzea merezi duten bizitza duinak izateko politikak garatuz.



Usurbilgo Udala



Martxoak 8aren bueltan herrian burutuko diren ekintzetan parte hartzera gonbidatzen dugu.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, adierazpen instituzionala aho batez onartua izan da.

4.2.- USURBILGO EH BILDU, H1! ETA EAJ-PNVK AURKEZTUTAKO MOZIOA: EUSKARA.

Alaitz Aizpuruak mozioa irakurri du.

Alkateak eskerrak eman dizkie Kontseiluko kideei bertaratzeagatik.

Batzarkideek, euskararen inguruko mozioa aztertu dute eta aho batez onartu dute, honako testuaren arabera:

“Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Erkidego Autonomoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean Usurbilgo Udalak adierazi nahi du:



Usurbilgo Udala



- Usurbilgo Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.
- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnaguneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnaguneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Usurbilgo Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.”

Bozketa egin denean, honako emaitza jaso da:

Aldeko botoak: Mertxe Aizpurua Arzallus, Alaitz Aizpurua Labaca, Josu Portu Alzaga, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Jose María Rivadeneyra Sicilia, Enara Arbizu Irurtia, Iñaki Ugarte Aguirre, Eustakio Arrojeria Eguzkiza, Jose Ramon Furundarena Salsamendi, Luismari Ormaetxea Santsiñena, Miren Josune Urquia Carrera eta Josune Urkola Larrarte.

Beraz, mozioa aho batez onartua izan da.

Alkate andreak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20ean eta bilera agiri hau jaso da, Alkateak izenpetuz eta nik, Idazkariak, ziurtatuz.